

GIZARTE- ERANTZUKIZUNAREN MEMORIA:

Domusa Calefacción Koop. E.



DOMUSA
T E K N I K



Aurkibidea

01. Konpromiso politika	Pag. 3
02. Gobernamendu ona	Pag. 4
2.1. Informazio gardentasuna	
2.2. Indarrean dagoen Araudia betetzea	
03. Ingurune Soziala-Komunitatearekin harremanak	Pag. 5
3.1. Filantropia eta Mezenasgoa	
3.2. Boluntariotza Korporatiboa	
04. Pertsonak	Pag. 6
4.1. Kontratazio politika / Lansari-sistema	
4.2. Garapen profesionala- formazioa	
4.3. Segurtasuna eta Lan-Osasuna	
05. Bazkideak / Jabeak	Pag. 7
5.1. Partaidetza irabazietan	
5.2. Kapital Sozialera ekarpena- Oreka finantzarioa	
06. Ingurumena	Pag. 8
6.1. Produktua	
6.1.1. Energia Berriztagarriak	
6.1.2. Eraginkortasun Energetikoa	
6.2. Fabrikazio sistema	
6.2.1. Lehengaien kontsumoa	
6.2.2. Hondakinak eta emisio kutsagarriak murriztea- ezabatzea	
07. Kanpoko lankideak	Pag. 9
(Bezeroak, hornitzaileak, formazio zentroak , administrazio publikoa).	



01. Konpromiso politika

DOMUSA CALEFACCION kooperatibak dokumentu honetan bere jarduera markoa eta konpromisoa adierazten ditu GIZARTEArekiko eta INTERES TALDEekiko, bere MISIOAN eta BALIO KOOPERATIBOETAN jasotako printzipioen arabera.

Ordezkaritza-organo sozietarioek eta exekutiboek (Kontseilu Errektorea eta Zuzendaritza Batzordea) beraien helburua adierazten dute DOMUSA sozialki erantzule den enpresa izateko. Ulerturik horrek kontzeptu zabalagoak hartzen dituela bere baitan, ondoren zehazten direnak, baina honela laburtu daitezkeenak:

- Jokaera etikoa edozein solaskiderekin akordioak egiteko orduan, indarrean dauden arauak zorrotz betez eta erakundearen errealitate ekonomiko-finantzarioaren berri emanez modu frogagarrian, gardentasunez eta zehatz-mehatz.
- Gertuko inguru geografikoaren hobekuntza soziala eta garapena babestea, elkarte sozial edo kulturalak diruz lagunduz edo kudeaketako ezagutza zabalduz, beste enpresa batzuei hobekuntza eta berrikuntzan laguntzeko.
- Gure erakundearen lan egiten duten pertsonen laneko ongizate etengabea bilatzea, langileek beraiek onartutako kontratazio eta lansari sistema batekin, etengabeko trebakuntza eta kaptazio planen bidez langileen garapen profesionala sustatuta, talde lanaren alde egiten duen kudeaketa eredu ezarrita eta laneko jarduerarako inguru seguru bat ziurtatzen duen Segurtasun eta Osasun planak geure eginda.
- Etengabeko errentagarritasuna sortzea, lanpostuak ziurtatzeko eta enpresako bazkideei jabe izaeragatik kapital fluxua emateko, baina aldi berean enpresako behar finantzarioekin orekan egotea.
- Ingurumena errespetatzea, gero eta eraginkorragoak diren produktuak diseinatu, eta beraz, energia gutxiago kontsumituko dutenak, energia berriztagarriak (eguzki energia, biomasa) erabiltzen dituzten produktuen gama handituz, ekoizpen sisteman planak ezarriz edozein motatako isuri kutsagarriak sortzea gutxitzeko eta lehengaien kontsumoa ahalik eta gehien gutxituz merkatuan jartzen diren artikuluak egiteko eta horien enbalajerako.
- Gure bezeroen, hornitzaileen eta gainerako administrazio publikoen etengabeko asebetetzea bilatzea zerbitzu eta arreta ezinhobea eskainita eta beraiekin hartutako konpromisoak zehatz-mehatz beteta.



02. Gobernamendu ona

2.1. Informazio gardentasuna.

- Jokaera etikoa edozein solaskiderekin akordioak egiteko orduan, indarrean dauden arauak zorrotz betez eta erakundearen errealitate ekonomiko-finantzarioaren berri emanez modu frogagarrian, gardentasunez eta zehatz-mehatz.
- DOMUSA TEKNIKek urtero bere jardueraren informazio finantzarioa eta ez finantzarioa osatu eta argitaratzen du erregistro publiko ofizialetan, puntualtasunez eta sakontasunez. Txostena egiaztatutako ospea duen kanpoko ikuskaritza enpresa independente batek egiten du.
- Enpresan lan egiten duten bazkide eta gainerako langileei urteroko Gestio Plan eta Plan Estrategikoen berri ematen zaie. Erakundeko liderrek hileroko informazioa zabaltzen dute ezarritako helburuen eta planen betetze mailaren eta izaera soziolaboraleko informazio garrantzitsuen inguruan.
- Korporazio Kooperatibo (MONDRAGON KORPORAZIO KOOPERATIBOA) bateko kide gisa, DOMUSA TEKNIKek organo kooperatiboetara informazio helarazten die, zehatz, emaitza ekonomiko eta ez ekonomikoen eta kudeaketa elementu guztien inguruan, eskatutako baldintza eta epeetan.

2.2. Indarrean dagoen araudia betetzea.

- Erakundeak zehatz-mehatz betetzen ditu bere jarduera enpresarialari eragiten dioten arlo guztiei eragiten dieten legezko eskakizun guztiak. Aplikazio esparru hauei eragiten dietenak aipatzea komeni da:
 - Langileen kontratazioa eta aseguramendua.
 - Laneko Segurtasuna, OHSAS 18001 arauaren arabera kanpo ikuskatzen den Seguratsun eta Osasun sistema batekin.
 - Ingurumena Babestea, ISO 14001 arauaren arabera kanpo ikuskatzen den Ingurumena Kudeatzeko Sistema batekin.
 - Merkaturatzen diren produktu-zerbitzuen kalitatea ziurtatzea, ISO 9001 arauaren arabera kanpo ikuskatzen den Kalitatea Kudeatzeko Sistema batekin.
 - Zerga-sistema trataera eragiketa komertzialei eta emaitzen kontuari, urteroko kanpo ikuskaritzen menpe.



03. Ingurune soziala Komunitatearekin harremanak

3.1. Filantropia eta Mezenasgoa.

DOMUSA TEKNIKek laguntza eta elkarlan ekonomikoko politika bat ezarrita du Urola-Erdiko inguru geografikoko dozena bat erakunderekin. Irabazi asmorik gabeko erakundeak dira, kultura sustatzen dutenak, kirol ez profesionala sustatzen dutenak, ahalmen urriko pertsoneri edo baliabide ekonomikorik gabeko pertsoneri laguntzen dietenak, GKEak, etab...

Horretarako, erakundeak bere irabazien %7,5 bideratzen du urtero, legez derrigortuta dagoen kopurua baino %50 handiagoa dena, bestela kapital erreserbetara bideratu zitekeen kopurua. Kontseilu Errektorea da laguntza eskaerak kudeatu, definitu eta lehentasunak ezartzeko ardura duen organoa.

3.2. Boluntariotza korporatiboa

Enpresak barneratuta du inguru enpresariala hobetzen eta garatzen laguntzeko konpromisoa eta kudeaketan dituen ezagutzak berrikuntzan eta hobekuntzan aurrera egin nahi duten erakundeei eskaintzen dizkie. Jarduera esparru horretan DOMUSA TEKNIKek bere ahalegina 3 area geografiko desberdinetan jartzen du:

- a) Urola-Erdi ingurua: bertan, IRAURGI BERRITZEN eskualdeko garapen agentziako bazkide sortzailea eta parte-hartzaile aktiboa da. Eskuzabalik ideiak eta esperientziak partekatu ditugu erakundeak azken urteetan planteatu dituen hainbat proiektutan. Bereziki, inguruko mikro-enpresei zuzendutako laguntzetan.
- b) Gipuzkoa ingurua: bertan, irabazi asmorik gabeko ZUBIGUNE FUNDAZIOko patrono sortzailea eta kide aktiboa da. Erakunde honen helburu soziala garapen teknologikoa eta soziala da enpresa, teknologia-gune eta Usurbilgo Lanbide Heziketako Ikastetxearekin elkarlanean.
- c) Euskal Herri ingurua: parte-hartze aktiboa EUSKALITen (euskal erakundeen kudeaketa kalitatea sustatzeko Euskal Fundazioa). 9 lagun ditugu Euskalitek homologatuta Kudeaketa Aurreratuaren Ereduaren arabera. Euskalitek berak enpresetan erreferentzia gisa bultzatzen duen herreminta, ebaluatzaile izateko. Horietako bi BIKAIN Hizkuntza Kudeaketa Ereduan ere ebaluatzaile izateko homologatuta daude, horren arabera Eusko Jaurlaritzak ematen duen ziurtagiri ofiziala lortu daiteke. Ziurtagiriak erakundeetan euskararen (Euskadiko hizuntza) erabileran, presentzian eta kudeaketan maila jakin bat egiaztatzen du. Urtero, gure ebaluatzaileak, modu altruistan bere eguneroko jardueran eredu hauek ezartzen ahalegintzen diren enpresetan parte hartzen dute kontrasteetan edo ebaluazioetan.

Horrez gain, ez horren modu egituratuan, beste erakunde eta administrazio publiko batzuekin ere elkarlanean aritzen gara hobekuntza sozial edo ingurumeneko hobekuntza dakarten proiektuetan (IHOBE, MONDRAGON UNIBERTSITATEA, ERREZILGO UDALA, etab.).



04. Pertsonak

4.1. Kontratazio Politika / Lansari Sistema.

Erakundeak bere MISIOAn eta izateko arrazoen artean jasota dauka "enplegu sozietarioa sortzea" eta horrek bere langileenganako konpromisoa dakar, denboran kooperatibako jabe bihur daitezzen. Kooperatiba izateak berarekin dakar baldintza hau, baina gure kasuan legeak eskatzen dituen gutxieneko ehunekoak gainditzen ditugu geuk horrela erabakita. Gaur egun langileen %85 bazkideak dira.

Kontratazio politika Batzar Nagusian onartzen da, horretarako berariazko araudia dago, kontratazioaz arduratzen direnek errespetatu behar dutena. Sistemak aukera berdintasuna bermatzen du eta edozein motatako diskriminazioak saihesten ditu. Baldintza bakarra bazkide gai denaren profesionaltasunak ezartzen du.

Ordainsari sistema ere bazkide guztiek onartzen dute Batzar Nagusian. Ordainsariaren eskuliburu bat dago langile guztiei aplikatzen zaiena, bazkide ez direnei ere bai, betiere, horiek, bazkiden profesionaltasun berdinarekin egiten badute beren lana. Parekatze hau dela eta, bazkide ez direnen ordainsariak historikoki hobetu egin dira metaleko hitzarmenean jasota daudenekin alderatuta, enpresak dituen berariazko irabazi sozialak eta lan-bizitza eta norberarena bateragarri egiteko laguntzak barne.

4.2. Garapen profesionala.

Ildo berean, erakundeak bere MISIOAn zehaztuta dauka "bertako kideen garapen profesionala" helburua. Printzipio hau betetzeko, erakundeko liderrek urtero bere laguntzaileen formazio plana zehazten dute eta urteko Gestio Planean jasotzen dituzte, betetzeko egutegiarekin batera. Formazio plana eta betetze mailaren jarraipena egiten da urtean zehar Zuzendaritza Batzordeko bileretan.

Postu berri bat edo lehendik dagoen postu bat bete behar bada, barne sustapena lehenesten da, betiere barruan lan hori egin dezaketen profesionalak badaude. Edozein modutara, postu bat bete behar den bakoitzean, beharra publikoki zabaltzen da enpresako langileen artean, edonork lanposturako eskaera egiteko aukera izan dezan.

4.3. Segurtasuna eta Lan Osasuna.

DOMUSA TEKNIKentzat bere langileen Segurtasuna eta Lan Osasuna bere barne kudeaketako garrantzi handienetako elementuetako bat da. OHSAS 18001 arauaren baitan egiaztatutako sistema bat dauka urtero kanpo auditoritza batek ikuskatzen duena.

Jarduerari dagozkion arriskuen ebaluazioa (argia, zarata, bibrazioak, eragile kimikoak, ergonomia, psikosozialak, etab.) eta horiek ezabatzeko edo gutxitzeko neurriak hartzea urteko gestio planaren parte dira. Planak eta adierazleak bi hilean behin berrikusten dira Lan Segurtasuneko Batzordean eta 3 hilean behin Zuzendaritza Batzordean.

Erakundeak Osasun Zaintza programa bat ere badauka, kasu honetan kanpo aholkularitza baten laguntzarekin. Aholkularitza horrek egiten ditu beharrezko mediku azterketak. Etengabeko jarraipena enpresa medikuaren esku dago, geure instalazioetan dauka kontsulta.

Azken urteetan izandako laneko istripuen tasa ezin hobea dela esan daiteke. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa industrialetako batez bestekoa baino %50 beherago gaude.



05. Bazkideak/ Jabeak

5.1. Irabazietan parte hartzea.

Erakundeak, kooperatiba izaeragatik, pertsonen interesak bateratzen dira bazkide, jabe eta bertako langile diren einean.

Enpresako edozein langilek, bazkide izan edo ez, parte hartzen dute irabazi sozialetan Batzar Nagusian onartutako irizpide batzuen arabera, aplikatu beharreko legeko betebeharren arabera.

Irabaziak banatzeko ereduak berdindu egiten ditu laneko ekarpena eta kapital jabetza, horrela langile jabe berriak hasieratik ditu bazkide jabe izatearen onurak.

Jabeek gehienagoz onartuta, bazkide ez langileek legeak gutxienez ezartzen duenaren parte hartze bikoitza dute emaitzetan, beraiekiko eskuzabaltasuna beste arrazorik gabe. Irizpide hori helburuengatik ordainsari aldakorrari edo beste edozein ordainsari aldakorri aplikatzen zaie, erakunde barruan DOMUSA TEKNIKEN lan egiten duten pertsonentzat ezartzen dena.

5.2. Kapital Sozialerako ekarpena-Oreka Finantzarioa.

Enpresak bazkide bakoitzak bertan inbertituta daukan kapitalera urtero ordainketa egiteko sistema bat dauka. Ordainketa sistema Batzarrean onartzen da eta urtero bertan berrikusi eta onartzen dira aplikatu diren kopuruak, legeak baimentzen duen mugen baitan.

Arau legalaren menpekotasunik gabe, erakundeak ordainketa horren aplikazioa erregulatzen duen sistema bat dauka, zuhurtzia handiko irizpideekin, horrela ez da posible arrazoi horiengatik finantza edo diruzaintza desorekarik egotea gehiegizko kapital irteera bat egon delako.

Era berean, erakundeak batzarrean adostutako arau bat dauka edozein arrazoiengatik bazkide izaterari utzi dioten bazkideen kapital ateratzea kudeatzeko, eta Kontseilu Errektoreak blokeatzeko eskubidea dauka enpresaren egoera finantzarioak horrela behar duenean.



06. Ingurumena

6.1. Produktua.

6.1.1. Energia berriztagarriak.

Badira hamar urte, DOMUSA TEKNIK energia berriztagarrien erabileran oinarritutako produktu eskaintza zabala merkaturatzeko esfortzua egiten ari dela. Hasierako apostua eguzki energiarekin ura beretzeko galdarak izan ziren 2005ean, eta 2010etik eskaintza zabaldu egin da erregai bezala basoko biomasa erabiltzen duten produktuak gehituta. Momentu honetan, enpresak merkatuko katologorik zabalena dauka; eguzki energiako soluzio hibridoak, eguzki energia energia fosilekin (gasa edo gasolioa) konbinatzen dituztenak, baina beraien konfigurazioan energia berriztagarrien erabilera nagusitzen da ahal den guztietan.

DOMUSA TEKNIK ek gama hauekin erlazioatutako hainbat patente ditu eta Nazioarteko hainbat azokatan sariak jaso ditu bere irtenbide berritzaileengatik (EnergieExpo Azoka- Paris, Climatizacion Azoka-Madril). Era berean, gama hauek enpresaren exportazioen egungo oinarria dira. 2015ean kanpo merkatuetako salmenten %56 izan ziren.

Hurrengo Plan Estrategikoetan helburuak igotzen joan dira, orain dela 10 urte ezer ez izatetik 2015ean salmenta guztien %35 izatera iritsiz. Egun indarean dagoen Plan Estrategikoan ezarritako helburua da 2 urteko epean berriztagarrietan %50eko kuota lortzea.

6.1.2. Eraginkortasun energetikoa.

Produktuen eraginkortasuna hobetzeko kezka elementu giltzarria izan da enpresan orain dela hamarkada bat baino lehenagotik. DOMUSA TEKNIK ondoren administrazio pulbikoek ezarri dituzten arau aldaketetara aurreratzen joan da, produktuaren funtzionamendurako erabilitako energiaren nolakotasuna edozein izanda ere, berriztagarria edo ez. Adibidez, Espainian lehenengo enpresa izan ginen merkatuan kondentsazio teknologia jartzen lurreko galdaretan, gases funtzionatzen dutenetan eta gasolioz funtzionatzen dutenetan (2002 urtea).

Egun, biomasa granulatuen gamak 2021era arte indarrean jarriko ez den eringortasun eta igorpen araudia betetzen du, gainera, gaur egun posible den energia kalifikazio handienarekin baloratuta dago (5. mota, EN 303-5 arauaren arabera) eta "Flamme Vert" label frantsesa dauka 6 eta 7 kategorian, oso marka komertzial gutxik lortzen dutena.

Gasoleo gamari dagokionez, europako eraginkortasun arau berria eta ERP energia etiketa (EB guztian bete beharrekoa) onartu berritan, lehen aipatutako kondentsazio gamaz gain, Europako ekoizle gutxienetakoak gara, momentu honetan tenperatura baxuko galdaren salmentarako horiek ere ziurtatuta eta balitaduta dituenak.

6.2. Ekoizpen sistema.

6.2.1. Lehengaien kontsumoa.

Erakundeak EKODISEINU teknikak erabiltzen ditu produktu berriak merkaturatzean, aparatuen bizitza zikloan ingurumen-eragina ahalik eta txikiena izateko. Ekoizpenean produktu toxikoak kentzeaz gain (edozein material berri departamentu medikoak baimendu behar du ekoizpenean erabili aurretik), diseinu departamentuak merkaturatze berri bakoitzean azkerketa sakona egiten du aparatuen masa gutxitu ahal izateko, beraien funtzionamendu egokia kaltetu gabe.

Era berean, kalitatezko materialen aldeko inbertsioa egiten da, egiten ditugun produktuen balio-bizitza luzatzea bermatzen dutenak. DOMUSA TEKNIKek, bere produktu katalogoaren zati garrantzitsuan, bere lehiakideek baino berme komertzialeko urte gehiago eskaintzen ditu (etxeko ur beroa sortzeko metagailuak eta eguzki sistemak).

Aurreko puntu batean azaldu bezala, erakundea aitzindaria izan da bere merkaturik garrantzitsuenetan, bere aparatuen eraginkortasuna handitzeko soluzioak sartzen eta horrela funtzionamendurako erabiltzen duten erregaia gutxitzen (kondentsazio galdarak eta tenperatura baxuko galdarak).

6.2.2. Hondakin kutsagarriak gutxitzea- ezabatzea.

DOMUSAK hondakinak-txatarra gutxitzeko edo eta ezabatzeko urteko plana dauka, bere arduraduna Produkzio zuzendaria da. ISO 14001 ziurtagiriaren baitan egiaztatutako ingurumen sistema bat izatean, plan hori urtero berrikusten du kanpo ikuskaritza enpresa batek.

Jarduera eremu horren baitan, azken urteetan hainbat hobekuntza proiektu egin dira, adibidez:

- Pintura prozesuan erabiltzen den koipegabetze-sistema aldatzea, fosfatoen erabilera saihesteko.
- Biomasa galdaren enbalajea birdiseinatzea, erabilitako plastiko eta egur kopurua gutxitzeko.
- Isolatzaileak aldatzea egiten ditugun galdaretako errektuntza-ganberetan, isuri kutsagarriak saihesteko.
- Xafla formatuak optimizatzeko plana, txatarra gutxitzeko, etab.



07. Kanpo-laguntzaileak (Bezeroak, hornitzaileak, trebakuntza-zentroak, administrazio publikoa, fabrikatzaileen elkarteak).

- Erakundeak bere MISIOAN jasota dauka "banatzaileen, preskriptoreen eta azken erabiltzailearen etengabeko asebetetzea bilatzea" egiten dituen produktuetan. Agindu horri leial izateko hainbat tresna erabiltzen ditugu asebetetze maila ezagutu eta egon daitezkeen atsekabeen arrazoiak zehaztu eta zuzentzeko (gogobetetze inkestak, iradokizun eta kexak erantzuteko taldea, kalitate batzordea, etab.). Gure zuzeneko bezeroek hobekien baloratzen duten atal bat "iradokizun eta kexen arreta" da, 2015eko bezeroen inkestan 4,22 puntu lortu zituen 5etik.

DOMUSA TEKNIKek informazio argi eta zehatza eskaintzen du bere promozio katalogoetan, instalatzaile profesionalak eta erabiltzaileak erosketa egiterakoan erabaki hoberena hartzeko zehaztasun guztiak eduki ditzaten. Era berean, zehatz-mehatz betetzen ditu lege eskakizun guztiak merkaturatutako produktuen ziurtagirietan eta etiketetan.

Urtero, ISO 9001 arauaren baitan ziurtagirietako kalitate sistema izateagatik, kanpo ikuskaritza bat izaten du erakundeak, aurrez esandako gutzia bere osotasunean betetzen dela egiaztatzeaz arduratzen dena. Kontratuak betetzeari dagokionean, erakundeak idatzizko akordioak egiten ditu bere bezero eta erosle taldeekin, zehatz-mehatz betetzen dituztenak, azken 25 urteetan gutxienez ez da egon horrelakorik ez betetzeagatik demanda judizialik.

- Lehengai, osagai eta zerbitzu hornitzaileak erakunde barruko osagai klabeak dira, eta beraiekin dugun harremana portaera etiko eta errespetuzkoan oinarritzen da, kontratuan zehaztutako konpromisoak zehatz-mehatz betez. Erakundeak hornitzaileei ordaintzeko legeak ezarritako eskakizunak betetzen ditu. 2015ean ordainketen batez besteko epea 58 egun izan dira.

DOMUSA TEKNIKek gogobetetze inkestak egiten ditu hornitzaileekin, bertan beraiekin dugun harreman komertzialaren inguruko hainbat arlo lantzen dira, eta emaitzak oso positiboak dira (azkeneko puntuazioan 10etik 8,99 lortu zen), aurrez aipatutakoak behar bezala funtzionatzen duenaren seinale argia.

- Hainbat Trebakuntza Zentro Profesionalekin akordioak ditugu Espainian eta Frantzia, energia eta instalazioekin erlazioatutako ikasketak egin dituzten ikasleek trebakuntzarako aparatuak dituzte eskura baldintza berezietan. Horrela, horiek erabili eta instalatzen ezagutza praktikoa lortzen dute, kostu baxuarekin eta era berean gure marka zabaltzen dugu etorkizuneko profesionalen artean.
- DOMUSA TEKNIK Espainiako eta Frantziako berogailu aparatuen Fabrikatzaileen Elkarteko kide da eta aktiboki parte hartzen dugu beraietan. Elkarre horien funtzioetako bat indarrean dagoen legedia defendatzea eta energia soluzio eraginkor eta berriztagarriak sustatzea da. Elkarre horietako batzorde teknikoetatik irteten dira ondoren arau edo legeetan islatzen diren proposamen asko. Horien ezarpenean ere laguntzen du promozio eta komunikazio lanak, elkarteko kideek beraiek egiten dutena sektoreko profesionalen artean.
- Azkenik, administrazio publiko desberdinekin (Udalak, Diputazioa, Autonomia Erkidegoa eta Gobernu Nazionala) erlazioatutako guztian, erakundeak denbora eta forma guztietan betetzen ditu beraiekin hartutako betebeharrak eta konpromiso guztiak (kontratazioa, zerga-sistema, ingurumena, etab.). Erakundeak uko egiten dio jarduteko modu opaku edo artifiziotsuak erabiltzen dituen edozein motatako egitura edo forma erabiltzeari bere zerga-karga gutxitzeko.

Era berean, ahal den guztietan horiek bultzatu eta laguntza eskaitzen zaigun praktika on edo dibulgazio proiektuetan parte hartzen dugu aplikazio adibideak erakusteko (IHOBEn, inguruko Udalak, etab.), eta gure inguruko enpresak garatzeko besteentzako adibide izan daizkeen berri emateko.

Sartu gure webgunera

[>> ETXEA](#)

[>> KONTAKTUA](#)

DOMUSA
T E K N I K